

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

36ko indarkeriaren 4 biktimaren gorpuzkiak eman dizkiete familiartekoei

Desagertutako 21 pertsona identifikatu dituzte Nafarroako Gobernuak sortutako DNA Bankuari esker

Osteguna, 2018.eko apirilak 19

Apirilaren 12an eta 15ean, Nafarroako Gobernuak Gregorio Almingol, Avelino Arriazu eta Marcos Cerdánen gorpuzkiak eman zizkieten haien senideei Buñuelen eta Victor Urquijorenak Altsasun. Lehen hirurak, Buñueleko bizilagunak, 1936ko abuztuaren 26an erail zituzten Zaragozako Magallon herrian, eta laugarrena, Altsasukoa, Otsaportilloko leizean hil zuten.

Buñuelgo hiru bizilagunen gorpuzkiak 2009an atera zituzten lurpetik Magallonen Eraildako eta Lurperatutako Senideen eta Lagunen Elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak. DNA Bankuaren lanen esparruan, Bake, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak berriro ekin zion identifikatzeko prozesuari, finantzaketarik ez izateagatik etenda geratuta baitzegoen.

Victor Urquijo, aldiz, Otsaportilloko leizean berreskuratutako zazpi pertsonetariko bat da; gaur arte horiek identifikatu ahal izan dira. Leize horretan lurpetik ateratzeko egiten ari diren lanetan, emaitza berriak egon daitezke.

Identifikazio-lanak ADN Bankuak, 2016an sortutakoak eta Nasertic enpresa publikoak kudeatzen duenak, gaur arte garatutako lanean kokatzen dira. Denbora horretan zehar, 144 espediente ireki dira, eta 21 pertsona identifikatu ahal izan dira. Bake eta Bizikidetzeta Zuzendaritzak lanean jarraitzen du baita ere Ezkabako ihesaldiko preso senideak bilatzen, Exhumazioen Programari esker berreskuratutako pertsonak identifikatzera iritsi ahal izatearren.

Lau pertsona horien gorpuzkiak entregatuta, jada 21 dira identifikatu ahal izan direnak, Nafarroan duela gutxi sortutako DNA Bankua egiten ari den lanaren esparruan.

DNA Bankuen arteko lankidetzeta

Ildo horretan, Memoria Historikoaren Autonomia arteko Sarearen I. Topaketan (martxoan) lortutako lehen emaitzetariko bat izan da DNA Bankuak dituzten lau komunitate autonomoren arteko lankidetzeta: Nafarroa, Andaluzia, Katalunia eta Euskadi. Lehenik hartutako neurrien artean bat izan da DNA bankuen artean koordinazio-lanak egiten aurrera jarraitzea, irizpideak eta datuak partekatzearen. Horretarako, maiatzaren 23an laneko bilera bat egingo dute lau DNA Bankuek, eta Nafarroako Gobernua bertan izango da.